

Euskotrenek Gipuzkoako autobus zerbitzua aldatuko du abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean

Euskotrenek Gipuzkoako autobus zerbitzua (Lurraldebus) aldatuko du abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean, Gabon gaua, Eguberri, Urtezahar eta Urte berri ospakizunak direla eta.

Ordutegia Gabonetako egunetara, abenduaren 24ko eta 31ko gauetara, egokitzeko asmoz, Euskotrenek autobus zerbitzuen amaiera aurreratuko du. Halaber, zerbitzu murriztua eskainiko da goizez abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean, eta eguerdian eten egingo da. Autobus zerbitzuak arratsaldean zehar normalizatzen joango dira.

Zerbitzuaren aldaketa horiek Euskotrenek Lurraldebus sistemarako kudeatzen dituen Gipuzkoako linea hauei eragingo diete:

DB01 Eibar-Elgeta
DB02 Ermua-Donostia (AP-8)
DB03 Lekeitio-Donostia (AP-8)
DB04 Mallabia-Ondarroa
DB05 Ondarroa-Zumaia
DB06 Soraluze-Ondarroa
UK07 Zumaia-Aizarnazabal-Zestoa
UK08 Zarautz-Aia-Orio
UK09 Zumaia-Donostia (N-634)
UK10 Zumaia-Donostia (AP-8 Zarautzik)
UK11 Zumaia-Donostia (AP-8 Oriotik).

Informazio gehiago nahi izanez gero:

- Euskotrenen telefonoa: 944 333 333
- Web gunea; www.euskotren.eus
- Twitter: @euskotren

Igorpen data: asteazkena, 2021eko abenduaren 22a